ARMINTZAKO HONDAKIN-UREN ARAZTEGIKO APARKALEKUA HANDITZEKO OBRAREN KONTRATUA —PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ ESLEITU BEHARREKOA— ARAUTU BEHAR DUTEN BERARIAZKO ADMINISTRAZIO-HITZARKINAK.

Esp. zkia.: B056-2023-00001

1. **KONTRATUAREN XEDEA**

1.1 Kontratu honen xedea da Lemoizko Armintzako hondakin-uren araztegiaren (HUA) kanpoaldean aparkaleku bat egitea. Aparkaleku berriarekin, antolatu nahi dira hondartzara sartu nahi duten ibilgailuak.

INGEPLAN SLk idatzi du obra egin ahal izateko proiektua, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen 2023ko urtarrilaren 19an.

Proiektua osatzen duten dokumentuak:

- Memoria
- Planoak
- Administrazio-hitzarkinen orriak.
- Berariazko agindu teknikoen orriak
- Aurrekontua
- Kalitate-kontrolaren plana.
- Hondakinen kudeaketa-azterlana
- Segurtasun eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana

Dokumentu horiek guztiek kontratu-izaera dute, eta, ondorio guztietarako, berariazko administrazio-hitzarkinen orri hauen barruan daudela jotzen da. Beraz, dagokion egunean emango den obra-kontratuaren zati izango dira.

Kontratu hau obren administrazio-kontratua da, hala ondorioztatzen baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 13. artikulutik (aurrerantzean, SPKL); lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

1.2 Kontratuaren xedea honako kode honen bitartez identifikatzen da:

CPV kodea: 45223300-9 (aparkalekuak egiteko lanak)

1.3 Ez da aldagarririk edo alternatibarik onartzen.

1.4 Justifikazio-memorian adierazten denarekin bat, ez da bidezkoa erloak egitea.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak administrazio-izaera dauka eta ondokoak aintzat hartuko ditu:

- Agiri honetan jasotzen diren hitzarkinak.
- Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa (SPKL).
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (SPKLAO) onartzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko Legea zati batez garatzen duena.
- 1987ko apirilaren 2ko Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Kontratazioa arautzen duen beste zeinahi xedapen, estatukoa, autonomia-erkidegokoa nahiz tokikoa, betiere toki-eremuan aplikagarriak badira.
- Modu osagarrian, Administrazio Zuzenbideari lotutako gainerako arauak aplikatuko dira edo, bestela, Zuzenbide Pribatuko arauak.

Kontratuaren edozein baldintza, kontratuari atxikitako agiriak edo Administrazioak emandako jarraibideak, baldintza-agiriak zein maila guztietako arauak (hitzartutakoa gauzatzeari eragiten badiote) ez ezagutzeak ez du enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko betebeharretik.

Baldintza-orri hauen eta kontratu-izaera duen gainerako dokumentazioaren artean ezadostasunik bada, baldintza-orri hauetan ezarritakoak izango du lehentasuna.

Proiektua osatzen duten dokumentuen artean ezadostasunik bada, proiektuaren zati den Berariazko Agindu Teknikoen Orriek finkatzen duten lehentasun-hurrenkeraren arabera jokatuko da.

Kontratu honetan aldeen artean sortzen diren desadostasunak ebazteko, administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa da eskuduna, hala ezartzen baita SPKLren 27.1 artikuluan.

3. KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA, ETA KONTRATAZIOAN EFIZIENTZIA

Kontratu hau prestatzeko dokumentazioan, SPKLk 28. artikuluan azaldutakoarekin bat, honako hauek justifikatzen dira: erakunde-helburuak, izaera eta ase behar diren administrazio-beharrak, xedearen egokitasuna eta asetzeko edukia, baita kontuan hartu diren faktore guztiak ere.

4. KONTRATUAREN ALDERDIAK

A) Administrazio kontratatzailea.

Kontratatzeko eskumena.- Kontratatzeko organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

Organo horrek kontratua esleitzeko gaitasuna du eta, ondorioz, eskumenak izango ditu kontratua interpretatu, betetzean sortutako zalantzak argitu, interes publikoa dela eta aldatu, suntsiaraztea erabaki eta ondoreak zehazteko. Hori guztia araudi aplikagarria kontuan hartuta egin beharko du.

Ematen dituen erabakiak betearazleak izango dira berehala, kontratistak bidezko jurisdikzioaren aurrean horiei aurka egiteko duen eskubideari kalterik egin gabe.

Kontratuaren arduraduna.- Obraren zuzendaria.

Kontratatzailearen profila.- Kontratu-jarduerari buruzko informazioa gardena dela eta jendearen eskura dagoela bermatzeko, beste publizitate-baliabide batzuk erabil daitezkeen arren, Udal honek Kontratatzailearen Profila dauka, eta web orri honetan ikus daiteke: www.lemoiz.eu.

B) Kontratista.

Kontratatzeko gaitasuna.- Ondoko baldintzak betetzen dituztenek kontratatu ahalko dute Lemoizko Udalarekin: pertsona naturalak edo juridikoak, espainiarrak edo atzerrikoak, gauzatzeko eskumen osoa dutenak, kontratatzeko debekurik ez dutenak eta, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen dutenak. Era berean, kontratistek, hala dagokionean, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzugintza gauzatzeko galdagarria den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

a) Pertsona juridikoak: kontratuen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta kontratuko prestazioak erakundearen berezko helburu, xede edo jarduera-eremukoak badira, estatutuetan edo fundazio-arauetan ezarritakoaren arabera.

b) Espainiar izan ez arren Europako Batasuneko estatukide bateko herritarrak: Kontratatzeko gaitasuna izango dute baldin eta, egoitza duten estatuko legeriaren arabera, dena delako zerbitzugintza egiteko gaituta badaude.

Lemoizko Udalarekin kontratatu ahalko dute aldi baterako eta ondorio horretarako enpresa eratzen duten enpresaburu-elkarteek; halakoetan, enpresaburuek obligazio solidarioa hartuko dute, baina aldi baterako enpresa ez da eskritura publiko bidez formalizatu beharko haren aldeko kontratuaren adjudikazioa egin arte. Era berean, enpresa elkartearen ordezkaria edo ahalordedun bakarra izendatu beharko dute eta ordezkari horrek ahal nahikoa izan beharko du kontratuaren eskubideak egikaritu eta betebeharrak betetzeko, harik eta kontratua azkentzen den arte. Nolanahi ere, ahal mankomunatuak ere eman ahal izango dira zenbateko esanguratsuak kobratu eta ordaintzeko.

Enpresaburuen aldi baterako elkarteen iraupenak bat etorri beharko du kontratuaren iraupenarekin, kontratua amaitu arte.

5. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren lizitazio-aurrekontua bat dator Administrazioak kontratu horretan egingo duen gehieneko gastuaren aurrekontuarekin: 116.820,93 euro (BEZ barne).

Eskaintzei dagokien lizitazio-muga —zenbateko handiagoa dakarren zeinahi proposamen kanpoan utziko duena— 116.820,93 eurokoa da, eta hobekuntza orok beherantz egin beharko du, zenbateko jakina eta zehatza adieraziz. Honela xehatuta:

Kontzeptua	Proiektua (€tan)
Burutzapen materialaren aurrekontua	***81.131,27€***
Gastos generales de la empresa	10.547,07
Beneficio industrial de la empresa	4.867,88
Impuesto sobre el valor añadido (21%)	20.274,71
PRESUPUESTO EJECUCION POR CONTRATA	**116.820,93**

Publizitate-mota eta esleipen-prozedura zehazteko, kontratu honen balio zenbatetsia (BEZa kanpoan utzita) LAUROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMOkoa da (**96.546,22** euro).

Prezioa zehazteko sistema: banakako prezioak.

Lizitatzaileak Administrazioaren proiektuaren aurrekontuko prezio berberak eskaintzen dituela ulertuko da. Prezio horiek, banaka hartuta, bere proposamen ekonomikoan jasotako guztizko prezioan izandako jaitsiera-ehuneko berarekin ukitu ahal izango dira.

Esleipendunak, nolanahi ere, proiektuan jasotako materialen kalitatea errespetatu beharko du.

Prezioaren barruan sartzen dira langileen eta hirugarrenen segurtasunerako eta osasunerako beharrezkoak diren neurri guztiak, nahiz eta Segurtasun eta Osasun Azterlanean jasota ez egon. Proiektuaren atal hau giltzarria da, barne hartzen baititu proiektuan eta segurtasun- eta osasun-azterlanean jasota ez dauden eta langileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren beste neurri batzuk. Horregatik, eskaintzaileek, eskaintza prestatzen dutenean, bereziki ebaluatu beharko dute atal hori.

6. AURREKONTU-KREDITUA IZATEA

2023rako aurrekontua behin betiko onartzen denean, behar besteko kreditua jasoko da 153.627.08 aurrekontu-aplikazioan, kontratu hau betetzeak Administrazioarentzat dakartzan betebehar ekonomikoei aurre egiteko.

7. EGITEKO EPEA

Kontratua betetzeko epe osoa EHUN ETA HOGEI (120) EGUN NATURALekoa da.

Kontratua betetzeko epea zuinketa-agiria egitearekin batera hasiko da. Ondorio horietarako, kontratuan adierazten den epearen barruan, zeina gehienez ere hamabost egunekoa izango baita kontratua formalizatzen den egunetik zenbatuta, justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, obraz arduratzen den Administrazioaren zerbitzuak, kontratista aurrean dela, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du, eta emaitzaren akta egingo da, bi alderdi interesdunek sinatuta.

8. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Gaur egungo inflazioa ikusita, prezioak berrikusi ahal izango dira, betiere arrazoituta.

9. ESLEIPEN-PROZEDURA ETA ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO MODUA

Kontratazio-espedientea ohiko eran tramitatuko da.

Kontratu honen esleipena prozedura IREKI ERRAZTUAren bidez egingo da, hainbat esleipen-irizpide erabilita, hala ezartzen baita SPKLren 159. artikuluan

Prozedura irekian, kontratuan interesa daukan enpresaburu orok proposamen bakarra aurkeztu ahalko du eta kontratuaren baldintza guzti-guztiak ezin izango dira negoziatu lizitatzaileekin.

10. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio-iragarkia Lemoizko Udalaren kontratatzailearen profilean baino ez da argitaratuko, Udalaren web orrian (www.lemoiz.eu;) eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman.

Lemoizko Udalaren kontratatzailearen profilean, kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa jasoko da, eta bertan txertatuko dira berariazko administrazio-hitzarkinen orriak eta, hala badagokio, agiri osagarriak.

11. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

a. Prozedura erraztuaren bidez egindako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaileek izena emanda egon beharko dute Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean (SPKLren 159.4.a artikulua).

Erregistro horietan inskribatzeak egiaztatzen ditu, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak, honako hauei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, gaikuntza profesionala edo enpresariala, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, sailkapena eta inskribatutako gainerako inguruabarrak, bai eta bertan jaso behar diren kontratatzeko debekuak dauden ala ez ere.

b. Kontratu honen xedea betetzeko proposamenak aurkeztu ahalko dituzte, aurrerago zehazten den eran, pertsona fisiko edo juridiko espainiar edo atzerrikoek, jarduteko gaitasuna erabatekoa dutenek, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute edo, bidezkoa bada, enpresaren sailkapena, betiere sailkapen horrek zuzeneko lotura badauka kontratuaren xedearekin, direnak direlako estatutu edo eratze-eskriturekin bat etorriz, behar bezala egiaztatzen bada eta, era berean, kontratua eraz gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material nahikorik badute.

c. Ezin izango dute lizitazioan parte hartu honako kontratazio honi atxikitako zehaztapen teknikoak prestatzen parte hartu duten enpresek, betiere parte-hartze horren ondorioz, lehia askearen aurkako murrizketak gertatzen badira edo mesede-traturik badakarkie gainerako enpresa lizitatzaileen aldean.

d. Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten baldintza-orriei eta agiriei egokitu beharko zaizkie, eta proposamena aurkezteak esan nahi izango du lizitatu behar duenak agiri honetako hitzarkinak eta gainerako kontratu-agiriak baldintzarik gabe onartzen dituela, inolako salbuespenik gabe. Era berean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, esanez aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla, eta betetzen dituela prestazioa kontratatzeko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak.

e. Lizitatzaileek ezin izango dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez bakarka, ezta enpresen aldi baterako elkarte bateko kide gisa. Gainera, bakarka lizitatzen duenak ezin izango du proposamenik aurkeztu beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkarte gisa. Arau horietako bat urratuz gero, enpresari ez zaizkio onartuko aurkeztutako proposamenak.

12. KAUDIMENA

Beharrezkoa da lizitatzaileen sailkapena aurkeztea. Hala ere, SPKLren 77.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, 500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duen obra-kontratua denez, enpresaburuak bi modu izango ditu, aukeran, bere kaudimena egiaztatu ahal izateko: batetik, kontratuari dagokion sailkapen-taldean edo -azpitaldean obra-kontratista gisa sailkatuta dagoela egiaztatzea; eta, bestetik, kaudimenari buruzko hainbat baldintza espezifiko betetzen dituela egiaztatzea. Hona baldintza espezifiko horiek:

12.1 KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren gutxieneko baldintzak: Urteko negozio-bolumena. Horretarako, jaso egingo da azken hiru urteetako urteko negozio-bolumen handiena, betiere kontuan hartuta enpresa noiz eratu zen edo enpresaburuaren jarduerak noiz hasi ziren. Negozio-bolumenaren zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halakoa izan beharko du, gutxienez 144.819,33€. Kaudimen-irizpide hori betetzen ez duten lizitatzaileak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Honela egiaztatuko da:

a. **Kontuak Merkataritza Erregistroan gordailuan utzita badituzte:**

   Baldintza-orri hauen 1. eranskin gisa agertzen den ereduaren araberako adierazpenaren bidez.

b. **Gainerako kasuetan:**

   Baldintza-orri hauen 2. eranskin gisa agertzen den ereduaren araberako adierazpenaren bidez, ereduan jasotako frogagiriak erantsiz.

(Oharra: Honako hau hartuko da urteko negozio-bolumentzat: merkataritza-legerian ezarritako urteko kontuen arauzko ereduetako galdu-irabazien kontuan agertzen den negozio-zifraren zenbateko garbia.

12.2 KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA:

Kaudimen tekniko/profesionalaren gutxieneko baldintzak:

- Kontratuari dagokion sailkapen-talde edo -azpitalde bereko obrak egiten esperientzia izatea, eta azken hiru urteetako gauzatze-urterik handienean metatutako urteko zenbatekoa 67.582,35 €ko edo handiagoa izatea, hau da,. kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70aren baliokidea.

  Interesatuak azken hiru urteetan egindako obren zerrenda baten bidez egiaztatuko da. Lanok abalatzeko, obra horiek ondo gauzatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta bertan adierazi beharko dira obren zenbatekoa, datak eta gauzatzeko lekua; era berean, zehaztu beharko da ea lanbidea arautzen duten arauen arabera egin ziren eta normalean ondo burutu ziren.

  Egindako lanak honela egiaztatuko dira: lanen hartzaileak sektore publikoko entitate bat denean, organo eskudunak emandako ziurtagirien bidez; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, horrek emandako azken ziurtagiri bidez, edo horrelakorik ez badago, enpresaburuaren aitorpen bidez.

Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa (enpresa sortu berritzat hartuko da bost urtetik beherako antzinatasuna duena).

a. Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritza-karguen titulu akademikoak eta profesionalak, eta, bereziki, obren arduradunarenak, bai eta obraz zuzenean

arduratzen diren teknikarienak ere. Hori egiaztatzeko, dagozkion tituluak aurkeztu beharko dira.

b. Adierazpen bat aurkeztuko dute, eta horretan azaldu beharko da zein diren obrak egiteko erabiliko dituzten makinak, materiala eta ekipo teknikoa; adierazpenarekin batera, dagozkion frogagiriak ere aurkeztu beharko dira, kontratazio-organoak hala eskatuz gero.

ESKATUTAKO KAUDIMENAREN ORDEZ AURKEZ DAITEKEEN ENPRESA-SAILKAPENA:

Eska daitezkeen taldea, azpitaldea eta kategoria.

TALDEA: G, bide eta pistei dagokiena.

AZPITALDEA: 4, nahaste bituminosodun zoladurei dagokiena.

KATEGORIA 1, hain zuzen ere, 150.000,00 €rainoko urteko zenbatekoei dagokiona.

13. ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Lizitazio honek izaera elektronikoa du. Lizitatzaileek halabeharrez beren eskaintzak elektronikoki prestatu eta aurkeztu beharko dituzte, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman eskaintzak prestatu eta aurkezteko tresnaren bitartez.

Zerbitzu horiek erabiltzeak honako hau dakar berarekin:

- Lizitatzaileak telematikoki aurkeztu beharko ditu eskaintzak.
- Sistemak elektronikoki zainduko ditu eskaintzak.
- Dokumentazioa plataformaren bidez ireki eta ebaluatuko da.

Proposamenak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, HOGEI (20) EGUNeko epean aurkeztuko dira, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, modu elektronikoan soilik. Horretarako, erabili beharko da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformak xede horretarako hautagai eta erakunde lizitatzaileen eskura jartzen duen Eskaintzak Prestatzeko eta Aurkezteko Tresna.

Eskaintza erregistratzerakoan arazo teknikorik sortuko balitz, programan eskaintza ixten denean sorturiko lorratz elektronikoa (transkribatua) bidali behar da ondoko helbide elektronikora, betiere eskaintzak aurkezteko epearen barruan: uribekostafotografia@gmail.com Ekintza horrek beste 24 orduko epea emango du eskaintza aurkeztu ahal izateko.

Eskaintzak aurkezteko aplikazioa:

https://apps.bizkaia.eus/kontratazioa/licitacion/solicitud?numexpediente=B089-2022-000011

Eskuliburua:

https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/

Eskaintzak aurkezteko, lizitatzaileek honako helbide hau deskargatu ahal izango dute:

https://apps.bizkaia.eus/kontratazioa/licitacion/solicitud?numexpediente=B056-2021-00001

Horregatik, lizitazio honetan parte hartzeko, garrantzitsua da lizitatzaileak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman erregistratzea —aurretik erregistratuta ez badaude—.

Eskaintza elektronikoak eta horrekin batera aurkeztutako beste edozein agirik elektronikoki sinatuta egon beharko dute, eta, horretarako, erabili beharko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan onartutako sinadura-sistemaren bat.

Eskaintza daukaten fitxategi elektronikoen edukiaren konfidentzialtasuna berauek ireki arte bermatzeko, tresnak zifratu egingo ditu fitxategi elektroniko horiek, bidalketa egiten denean.

Agiriak aurkeztu ondoren, tresnak bidalketa-egiaztagiri bat emango dio entitate lizitatzaileari, data eta orduen zigilu eta guzti. Lizitatzaileak agiri gorde eta inprimatu egin ahal izango du.

14. LIZITZAILEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

SPKLk 138. artikuluan aipatzen duen informazio gehigarria edo osagarria eskatu behar denean, administrazio kontratugileak gutxienez eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino sei egun lehenago helarazi beharko du, betiere gutxienez data horrekiko hamabi egun lehenago eskatu bada. Eskaera helbide elektroniko honetara bidaliko da: idazkaritza@lemoiz.eus.

15. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak bi fitxategi elektronikotan aurkeztuko dira, lizitatzaileak sinatuta; horietan, fitxategi elektronikoaren izena idatziko da. Fitxategiek honako izen hauek izango dituzte:

A fitxategia: Erantzukizunpeko adierazpena eta formularen bidez zenbakarriak ez diren irizpideei buruzko agiriak.

C fitxategia: Formula bidez kuantifika **ezin** daitezkeen irizpideei lotutako agiriak

B fitxategia: Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei lotutako agiriak.

Fitxategi bakoitzean, agiri originalak edo indarreko legediarekin bat kautotutako kopiak sartuko dira.

Fitxategi bakoitzean hurrengo agiri hauek eta horien zerrenda zenbakitua aurkeztuko dira:

A fitxategia: Erantzukizunpeko adierazpena eta formularen bidez zenbakarriak ez diren irizpideei buruzko agiriak.

a. Lizitatzaileak Lemoizko Udalaren aurrean egiten duen **erantzukizunpeko adierazpena** (2. eranskineko ereduaren arabera), bertan adieraziz bete egiten dituela Legeak administrazioarekin kontratatzeko ezarritako baldintzak. Adierazpena elektronikoki sinatuta egon beharko du, dagokion identifikazioa jarrita.

b. Enpresaburuen elkartea bada: **ABEE ERATUKO DELAKO KONPROMISOAREN AGIRIA** (4. eranskinean ageri den ereduaren arabera), sinatzaileen izen-abizenak eta karguak, bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta, kontratuak irauten duen artean, Administrazioaren aurrean denen ordezkaritza osoa nork izango duen adierazita.

Fitxategi elektroniko honetan **ez da inola ere** eskaintza ekonomikorik sartuko, ez eta eskaintza ekonomikoaren dokumentu adierazgarririk edo formularen bidez zenbatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumenturik ere.

C fitxategia: Formula bidez kuantifika <u>ezin</u> daitezkeen irizpideei lotutako agiriak.

Lizitatzaileek beren eskaintzak **baloratzeko** eta haztatzeko **beharrezkoak diren dokumentuak** aurkeztu beharko dituzte, formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei dagokienez.

Fitxategi elektroniko honetan ez da inola ere eskaintza ekonomikorik sartuko, ez eta eskaintza ekonomikoaren dokumentu adierazgarririk edo formularen bidez zenbatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumenturik ere.

B fitxategia: Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei lotutako agiriak.

a. Proposamen ekonomikoa

Eredu honen arabera aurkeztuko da:

<u>PROPOSAMEN EKONOMIKOA</u>
PROPOSICIÓN ECONÓMICA

Lizitazioaren gai diren obrak Obras objeto de licitación	

Ordezkariaren datuak/ Datos de la persona representante

Izen-abizenak eta NAN Nombre y apellido, y DNI	
Jakinarazpen helbidea eta herria	

Domicilio y municipio a efectos de notificaciones	
Ordezkatzen duen entitatea eta IFZ Entidad a que representa y NIF	

Prozedura/ Procedimiento

Prozedura-mota Modalidad de procedimiento	
Non argitaratu den prozedura-iragarkia Publicación del anuncio en	Kontratatzailearen profila Perfil del contratante

Goian agertzen naizen honek adierazten dut badudala lizitazio honetako baldintza-orrien berri, eta oso-osorik onartzen ditudala. Horrenbestez, lizitazioan parte hartzeko, neure gain hartzen dut dagokion kontratua gauzatzeko konpromisoa. Hona hemen eskaintza:

La persona arriba citada hace constar que conoce el Pliego que sirve de base al contrato y lo acepta íntegramente, tomando parte de la licitación y comprometiéndome a llevar a cabo el objeto del contrato, con arreglo a la siguiente oferta:

Eskaintzaren zenbatekoa/ Importe de la oferta

Oinarria (letraz eta zenbakiz) Base (con letra y número)	
BEZ (letraz eta zenbakiz) IVA (con letra y número)	

_____n, 20__(e)ko _____aren _____(e)an.
En _____, a ___ de _____ de 20__.

Hautagaiaren izenpea
Firma del candidato/a
Izpt.:/Fdo.: _____.

b. **Eskaintzari buruzko beste agiriak (egotekotan)**: ez dira prezioari buruzkoak izango, baina bai automatikoki zenbatzeko modukoak.

Letraz eta zenbakiz adierazitako eskaintzaren artean adostasunik eza badago, nagusi izango da letraz adierazitako zenbatekoa (lizitazio-oinarria gainditzen denean izan ezik), salbuespen batekin: dokumentazioa aztertu ondoren arrazoizko irizpideak erabilita, kontratazio-mahaiak beste ikuspuntu bat badu.

Eskaintzak baztertzea ez dakarten kontraesanak edo akatsak egotekotan, kontratazio-mahaiak erabakiko du arrazoizko irizpideak erabiliz, administrazioarentzat mesedegarrien den moduan.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

16. BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AGIRIAK AURKEZTEA, ESLEITZEKO PROPOSAMENA EGIN BAINO LEHEN.

Adierazpenaren indarraldiaren edo fidagarritasunaren inguruko arrazoizko zalantzarik badago edo prozeduraren garapen onarentzat beharrezkoa bada, kontratazio-mahaiak egiten duen adjudikazio-proposamenaren ebazpenaren aurretik ere, eskatu ahalko da lizitatzaileek egiazta ditzaten legez ezarrita dauden eta baldintza-agiri honetan jasota dauden kontratatzeko baldintzak betetzen direla.

Kasu horretan, zerbait egiaztatzeko egiaztatu behar duten lizitatzaileek eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte adierazitako epearen barruan, gehienez ere, hamar laneguneko epean. Aurkeztutako agiriek zuzentzeko moduko akatsak edo hutsak badituzte, gehienez ere, hiru laneguneko epea izango dute akatsak zuzentzeko.

Agiri egokiak epe horren barruan aurkeztu ezean, lizitatzailea edo lizitatzaileak prozeduratik baztertuko d(ir)a.

17. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Proposamenak baloratzeko, eta eskaintzarik onena zein den zehazteko, hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira, kalitate-preziorik onena identifikatzeko.

a. **Formula bidez balora daitezkeen irizpideak beheranzko hurrenkeran puntuatuko dira:**

   <u>A) BALORAZIO EKONOMIKOA. GEHIENEZ 50 PUNTU.</u>

   Lizitazio-jaitsierak kalkulatu ondoren, puntuazioak esleituko dira, ondoren zehazten diren formulak erabiliz. Aplikatu beharreko formula aukeratzeko, beharrezkoa da A, B eta C balioak kalkulatzea, honela:

   A= 0,20 x Bgeh
   B= lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari “i” eskaintzak egiten dion jaitsiera da;
   C= 0,50 x Bgeh

“Bi” txikiagoa bada A baino, edo Aren balio berekoa bada, Pi = 38,0 x Bi / A

“Bi” handiagoa bada A baino, eta C baino txikiagoa edo Cren berdina bada, Pi = 47 x (Bi – A) / (C – A)

“Bi” handiagoa bada C baino Pi = 50 x (Bi - C) / (Bgeh – C)

Hau da:

Pi: “i” eskaintzaren puntuazioa
Bi: jaitsieraren % (adibidez, %15eko jaitsiera, B = 15)

Hasiera batean, neurriz gaindiko eskaintzatzat edo gutxiegizko balioak dituzten eskaintzatzat joko dira honako kasu hauetan dauden proposamenak:

a) Lizitatzaile bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino ehuneko 20 baxuagoa denean.

b) Bi lizitatzaile direnean, aurkeztutako beste eskaintzatik ehuneko 15 baino gehiago jaitsi duena.

c) Hiru lizitatzaile direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikotik ehuneko 10 baino gehiago jaitsi dutenak. Hala ere, batez besteko hori kalkulatzeko, baztertu egingo da zenbateko handiena duen eskaintza, baldin eta zenbateko hori batez bestekoa baino ehuneko 10etik goragokoa bada. Nolanahi ere, neurriz gaindikotzat joko dira ehuneko 20 baino jaitsiera handiagoak dituzten eskaintzak.

d) Hiru lizitatzaile edo gehiago direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikotik ehuneko 10 baino gehiago jaitsi dutenak. Hala ere, horien artean, batez besteko hori baino ehuneko 10etik gora gainditzen duten eskaintzak badaude, beste batez besteko bat kalkulatuko da, adierazitako kasuan ez dauden eskaintzekin soilik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria zenbateko txikiena duten hiru eskaintzekin kalkulatuko da.

e) Eskaintzak neurriz gaindikotzat jotzeko, kontratazio-mahaiak kontuan hartu ahal izango du enpresa-kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko harremana.

Neurriz gaindiko bajak ote dauden zehazteko erreferentzia-zenbatekoa lizitaziorako oinarrizko aurrekontua izango da, betiere Segurtasun eta Osasun kontzeptua kenduta.

NOLA JUSTIFIKATU ZEIN FORMULA AUKERATU DEN:

Hona hemen nola justifikatzen den formularen aukera: formula aplikatuz, gorantz baloratzen dira aurkeztutako eskaintza ekonomikoak, eta puntuazio guztiak 0 eta 49 puntu artekoak izan daitezke, aurkeztutako eskaintzaren arabera.

B) KALITATE-IRIZPIDEAK. GEHIENEZ 1 PUNTU.

Kalitate-kudeaketako ISO 9001 sistema edo baliokidea (baldin eta egiaztatu ahal bada) duten enpresa lizitatzaileei puntu bana emango zaie.

Ingurumena kudeatzeko sistema hori gaur egun indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da.

C) INGURUMEN-IRIZPIDEAK, PUNTU BAT.

Ingurumena kudeatzeko EMAS ISO 14001 sistema edo baliokidea (baldin eta egiaztatu ahal bada) duten enpresa lizitatzaileei puntu bana emango zaie.

Ingurumena kudeatzeko sistema hori gaur egun indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da.

D) LAN-SEGURTASUNEKO IRIZPIDEAK, PUNTU BAT

Ingurumena kudeatzeko ISO 45001 sistema duten enpresa lizitatzaileei puntu bana emango zaie.

Ingurumena kudeatzeko sistema hori gaur egun indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da.

E) OBRA-BERMEAREN EPEA LUZATZEA, GEHIENEZ ERE 5 PUNTU.

Berme-epearen gutxieneko epea urtebetekoa da, eta baloratu beharreko epe-luzapena, gehienez, 2 urtekoa izango da. Kasu horretan, gehieneko puntuazioa lortuko du, 5 puntu. Berme-epean inolako luzapenik eskaintzen ez duenari 0 puntu emango zaio, eta gainerako eskaintzei 2,5na puntu emango zaie gutxieneko berme-epetik gora eskaintzen duten urte bakoitzeko.

F) BURUTZAPEN-EPEA LABURTZEA, GEHIENEZ ERE 3 PUNTU.

Burutzapen-epean gehienez ere balora daitekeen murrizketa 30 egunekoa izango da, eta 3 puntu emango zaizkio epea 30 egunez murriztea eskaintzen duenari. Burutzapen-epea murrizten ez duenari 0 puntu emango zaio, eta, hortik gora, epea murrizten den egun bakoitzeko 0,1 puntu emango dira.

.**Formula bidez baloratu ezin diren irizpideak beheranzko hurrenkeran puntuatuko dira:**

A) PROPOSAMEN TEKNIKOA EDO MEMORIA, GEHIENEZ 40 PUNTU.

Puntuazioa emango zaie lanen programazioaren edukiari, xehetasun-mailari eta justifikazioari; baloratuko dira programazioaren koherentzia eta, beraz, betetzeko bermea. Baldin eta obra-memoriaren edo programazioaren bidez susma badaiteke zein den kontratistak eskainitako prezioa, bazter utziko da dagokion eskaintza.

Proiektuaren ezagutza-maila baloratuko da. Proiektuak barne eduki beharko ditu honako hauek: obraren burutzapenari buruzko azterlan oso zehatza, egin beharreko jarduera nagusien deskribapena, obraren unitateak gauzatzeko problematika zehatzaren eta zailtasunen azterketa, baita horiek konpontzeko modua ere. Baloratuko da, halaber, eraikuntza-memoria noraino datorren bat aurkeztutako obren kronogramarekin, epeekin, eta proposatutako baliabideekin eta aurrekontu partzialekin.

Era berean, eta eraikuntza-prozesuaren deskribapen horren nahitaezko osagarri gisa, sartu beharrekoak izango dira bizilagunei eragingo zaizkien kalteen analisia, eta kalteok ezabatu edo gutxitzeko ezarri beharreko neurriak.

18. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia da eskaintzak baloratzeko eta administrazio-agiriak kalifikatzeko organo eskuduna, SPKLren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eratua, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

Osaera:

Batzarburua: Alkatea, Iñaki Alonso Martín jauna; edo berak eskuordetzen duen zinegotzia.

Batzarkideak: Udalaren idazkari-kontuhartzailearen eginkizunak betetzen dituena, eta Udalaren administrari laguntzaile Miren Josebe Elorduy Ardanaz andrea.

Idazkaria: Lander Alberdi López jauna, Udalaren bitarteko funtzionarioa; eta, ordezkoa, idazkari-kontuhartzailea.

19. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Eskatzen den fitxategi elektronikoren bat aurkezten ez bada, bazter utziko da dagokion eskaintza.

a) A fitxategia irekitzea.

Mahaiak onartu eta baztertutako proposamenak jakinaraziko ditu, bai eta baztertzeko arrazoiak ere, eta onartutako lizitatzaileen A fitxategiak irekiko ditu (administrazio-dokumentazioa eta formula bidez baloratu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa).

Mahaiak aurkeztu den dokumentazioan zuzen daitezkeen akats edo errore materialak hautematen baditu, horren berri emango die interesdunei bitarteko elektronikoen bidez eta, gehienez, hiru eguneko epea izango du lizitatzaileak akatsa zuzen dezan. Jakinarazpenean ohartaraziko zaie zuzendu egin behar dutela dokumentazioa emandako epearen barruan, eta, hala egiten ez badute, bazter geratuko direla behin betiko.

Kasu horretan, Kontratazio Mahaiaren bilkuraren akta egingo da, eta organo horren beste deialdi bat egingo da, betiere zuzentzeko epea amaituta.

Zuzenketak egin ondoren, Kontratazio Mahaiak zuzenketei buruzko balorazio-txostena eskatuko dio bulego teknikoari; txostena gehienez ere zazpi eguneko epean egin beharko da.

Era berean, proposamenak baloratzeko, eta Mahaiak proposamena egin aurretik, bidezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

b) B fitxategia jendaurrean irekitzea.

Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko helburuz eskatu diren txostena(k) jasota eta ezagututa, mahaia eratu egingo da eta ekitaldi publikoan jakinaraziko ditu formula bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideei emandako zenbatespenaren berri emango du.

Ondoren, onartutako proposamenen B fitxategia irekiko da (formula bidez balora daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa); eta, jarraian, proposamenotan jasotako eskaintzak irakurriko dira.

c) Eskaintzak ebaluatzea eta adjudikatzeko proposamena.

Kontratazio-mahaiak ondoko jarduketak bideratuko ditu, behar beste saio edo bilkuretan:

- Eskaintzek baldintza-agirietan ezarritako debekuren bat duten egiaztatuko du.

- Onartutako eskaintzek gutxiegizko balioak ote dituzten egiaztatuko du. Hala bada, ondoko hitzarkinak dioenari jarraiki jardungo du. Azaldutako prozedura amaituta, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari proposatuko dio erazko eskaintzak onartzeko eta bete ezin direnak baztertzeko.

- Eskaintzen puntuazioa kalkulatuko du eta eskaintzarik onena ebatziko du, eskaintza bakoitzak adjudikazio-irizpide guztietan lortutako puntuak batuta.

- Kalkulua egiteko, ez ditu aintzat hartuko baztertzeko proposatu dituen eskaintzak.

- Kontratazio-mahaiak goitik beherako puntuazioaren hurrenkeran sailkatuko ditu eskaintzak eta, sailkapen horren arabera, adjudikatzeko proposamena helaraziko dio kontratazio-organoari.

- Esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari dagokionez, mahaiak ondoko hauek egiaztatuko ditu Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean: ea enpresa behar bezala eratuta dagoen, ea proposamenaren izenpetzaileak nahikoa ahala daukan eskaintza egin ahal izateko, ea kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa daukan, edo, hala badagokio, sailkapena, eta ea ez duen kontratatzeko inolako debekurik.

SPKLren 139.1 artikuluan, proposamenak aurkezteak esan nahi du kontratazio-organoari baimena ematen zaiola Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitzei buruzko publizitatea.

Kontratazio Mahaiaren egintzen emaitza gutun-azalen irekitze-aktetan jasoko da. Akta horiek kontratu bakoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira, udalaren webgunearen barruko kontratatzailearen profilean.

20. EZOHIKO BALIOAK EDO NEURRIZ GAINDIKOAK DITUZTEN ESKAINTZAK.

Baldin eta, eskaintzak baloratzeko irizpideetan ezarritako parametroak aplikatuz, eskaintza horietakoren bat anormaltasun-presuntzioan badago, gehienez ere bost eguneko entzunaldia emango zaie eragindako lizitatzaileei, eskaintza baldintza horietan gauzatzea ahalbidetzen dieten inguruabarren justifikazio egokia aurkez dezaten. Egoera hori baloratzeko irizpideak SPKLren 149.4 artikuluan jasotzen dira.

Eskaintza bat ezohikoa dela esateko, aintzat hartuko dira ondoko parametro hauek:

Hasiera batean, neurriz gaindiko eskaintzatzat edo gutxiegizko balioak dituzten eskaintzatzat joko dira honako kasu hauetan dauden proposamenak:

a) Lizitatzaile bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino ehuneko 20 baxuagoa denean.

b) Bi lizitatzaile direnean, aurkeztutako beste eskaintzatik ehuneko 15 baino gehiago jaitsi duena.

c) Hiru lizitatzaile direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikotik ehuneko 10 baino gehiago jaitsi dutenak. Hala ere, batez besteko hori kalkulatzeko, baztertu egingo da zenbateko handiena duen eskaintza, baldin eta zenbateko hori batez bestekoa baino ehuneko 10etik goragokoa bada. Nolanahi ere, neurriz gaindikotzat joko dira ehuneko 20 baino jaitsiera handiagoak dituzten eskaintzak.

d) Hiru lizitatzaile edo gehiago direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikotik ehuneko 10 baino gehiago jaitsi dutenak. Hala ere, horien artean, batez besteko hori baino ehuneko 10etik gora gainditzen duten eskaintzak badaude, beste batez besteko bat kalkulatuko da, adierazitako kasuan ez dauden eskaintzekin soilik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria zenbateko txikiena duten hiru eskaintzekin kalkulatuko da.

e) Eskaintzak neurriz gaindikotzat jotzeko, kontratazio-mahaiak kontuan hartu ahal izango du enpresa-kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko harremana.

Neurriz gaindiko bajak ote dauden zehazteko erreferentzia-zenbatekoa lizitaziorako oinarrizko aurrekontua izango da, betiere Segurtasun eta Osasun kontzeptua kenduta.

Prozeduran, beharrezko aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango da.

Nolanahi ere, eskaintzak baztertu egingo dira gutxiegizkoak direla egiaztatzen bada, betiere honako arrazoi hauek tarteko: azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako; edo ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak, estatukoak nahiz nazioartekoak, betetzen ez dituztelako; edo, bestela, indarrean dauden hitzarmenak betetzen ez dituztelako.

Dena dela, ulertuko da justifikazioak ez duela proposatutako prezio edo kostuen merkea behar bezala arrazoitzen osorik ez dagoenean edo, ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomikotik, hipotesi edo jardunbide desegokietan funtsatzen denean.

21. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Abantailazko proposamen berdin-berdinak suertatuz geri (puntuazio berdina lortu dute, bi hamartarreraino), kontratuaren adjudikazioa bideratzeko, lehentasunez, berdinketa hausteko ondoko irizpideak erabiliko dira:

1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitzean enpresaren barruan berdintasun-plan bat dagoela egiaztatzen duten enpresek aurkeztutako proposamenak.

2. Plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen ehunekorik handiena.

3.- Zozketa, baldin eta aurreko irizpideak aplikatuta, berdinketa hautsi ez bada.

Honako atal honek jorratzen dituen berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte lizitatzaileek berdinketa gertatzen den unean, ez lehenago.

Horretarako, Kontratazio Mahaiak agiri egokiak eskatuko dizkie berdindutako enpresei eta, gutxienez, egutegiko bost eguneko epea emango die aipaturiko agiriak aurkezteko.

22. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Kontratazio-mahaiak proposatutako eskaintzen sailkapena onartu egingo du kontratazio-organoak.

23. ESLEIPENAREN AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Alkatetzaren dekretu bidez —komunikazio elektronikoa erabiliz—, puntuaziorik onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio hainbat dokumentu aurkezteko, komunikazioa bidali zaionetik zazpi (7) egun balioduneko epean barruan. Hona hemen dokumentazioa:

1. **Behin betiko bermea.** Eskainitako azken prezioaren % 5eko behin betiko bermea —BEZ kanpoan utzita— Lemoizko Udalaren alde eratu izanaren frogagiria.

Bermea legeak aurreikusten dituen eretatik edozeinetan eman ahalko da.

Administrazioak gorde egingo du bermeen sinaduren legeztapena eskatzeko eskubidea.

Enpresaburuen aldi baterako elkarteei dagokienez, elkarteko kide diren sozietateen izenak eta IFK direlakoak adierazi beharko dira. Era berean, lizitazioan parte hartzen duen enpresa batek edo enpresa batzuek eratu ahalko dituzte bermeak, betiere, berme guztiak batuta, eskatutako zenbatekoari heltzen badiote eta aldi baterako elkartea osatzen duten kide guztien jarduna era solidarioan bermatzen bada.

Bermea ez da itzuli edo kitatuko berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, hala ezartzen baitaa SPKLren 111. Artikuluan.

Bermeak SPKLk 110. artikuluan jasotako kontzeptuei erantzungo die.

2. Erantzukizunpeko adierazpenean hala azaldu bada, kaudimena kanpoko baliabideen bidez osatzeko konpromisoa; 5. eranskineko ereduaren arabera.

3. Esleipenduna enpresaburuen aldi baterako elkartea bada, elkartearen eraketa formalizatzen duen eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko kide bakoitzak aldeko ziurtagiria aurkeztu beharko du ogasunaren eta gizarte-segurantzaren zerga-arloari dagokionez, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko agiriak aurkeztu beharko ditu.

4. Bidezkoa bada, kontratazio-organoaren eskariz, kontratua gauzatzeko eskaini edo esleitzeko konpromisoa hartutako baliabideen eskuragarritasuna egiaztatzen duten agiriak.

5. **Lizitatzaileen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria, eta horrekin batera, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, adieraziz ziurtagirian azaltzen diren inguruabarrak ez direla aldatu.**

6. **Enpresa-sailkapena.** Bestela, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala baduela egiaztatu beharko du, eta, horretarako, baldintza-orri hauen 12. hitzarkinean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eskatutako gutxieneko kaudimen—baldintzak egiaztatzeko.

Akatsak zuzentzea. Aurkezturiko agirietan, zuzentzeko moduko akats edo hutsik antzematen bada, interesdunari jakinaraziko zaio posta elektronikoz eta, gehienez ere, hiru laneguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko.

Ez betetzea.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez badu, eskaintza erretiratu duela ulertuko da, SPKLren 71. artikuluaren 2. apartatuaren a) letran ezarritakoaren ondorioekin.

Kasu horretan, agiri berberak eskatuko zaizkio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeraren arabera.

24. ESLEITZEA.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta handik bost eguneko epearen barruan esleitu beharko du kontratua. Esleipena kontratazio-organoak erabakiko du ebazpen arrazoituaren bidez, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie bitarteko elektronikoen bitartez; 15 eguneko epean argitaratu beharko da kontratatzailearen profilean.

25. KONTRATUA BURUTZEA.

Kontratuaren indarra formalizatzeaz batera hasiko da.

Kontratua formalizatutzat joko da kontratazio-organoaren egoitza dagoen lekuan.

26. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua administrazio-agiri batean formalizatu beharko da, lizitazioaren baldintzak zehaztasun osoz jasotzen dituela. Agiri hori titulu nahikoa izango da zeinahi erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatzen den agirian, ezin izango da adjudikazioaren baldintzak aldarazten duen inolako klausularik txertatu.

Nolanahi ere, lizitatzaileek eta hautagaiek esleipen-jakinarazpena jaso osteko hamabost egun balioduneko epearen barruan formalizatu beharko da kontratua, betiere, SPKLren 151. artikuluan aurreikusitako eran. Kontratua ezingo da aurretik formalizatu ezean gauzatu.

27. KONTRATUA EZ FORMALIZATZEAREN ONDORIOAK.

Kontratua legez ezarritako epearen barruan formalizatu ezin bada esleipendunari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla eta, ondoko jarduketak bideratuko dira:

- - Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZ kanpoan utzita) eskatzea, kalte-ordain gisa. Zenbateko hori, lehenengoz eta bat, behin-behineko bermearen kontra kobratuko da, bermerik eratu bada, SPKLren 71.2 artikuluaren b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.

- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleitzea, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran, 23. klausulan adierazitako agiriak aurkezteko eskatu eta aurkeztu ondoren.

Ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egozten bazaizkio, berandutzeak sortzen dizkion kalte-galerengatik kalte-ordaina emango zaio kontratistari.

28. ASEGURUAK.

Kontratua formalizatutakoan, esleipendunak ondoko agiria aurkeztu beharko du:

ASEGURU-ETXEAREN ZIURTAGIRIA, kontratistak izenpetutako erantzukizun zibileko poliza indarrean daukala egiaztatzen duena.

Esleipendunak ondoko aseguru-poliza hau kontratatu eta bere kontura ordaindu beharko du kontratuaren iraunaldiaren eta berme-epearen barruan:

Erantzukizun zibileko asegurua, bere alderdi orokorretan edo ustiapenekoa, patronala, eta amaitutako lanena, horren barrua direla kontratista eta azpikontratista, hala badagokio.

Ustiapeneko erantzukizun zibilerako frankiziak ezin izango du 10.000 €tik gorakoa izan, eta istripuagatiko gutxieneko kalte-ordaina hauxe izango da:

LIZITAZIO-PREZIOA (EUROAK)	GUTXIENEKO KALTE-ORDAINA (EUROAK)
Gehienez, 1.000.000	300.000
1.000.001 eta 3.000.000 bitartean	600.000
3.000.001 eta 9.000.000 bitartean	1.500.000
9.000.001 eta 25.000.000 bitartean	3.000.000

Nolanahi ere, esleipenduna arduratuko da kalte-galerez, frankiziaren zenbatekoan, bai eta kalte-galera horien eta aseguru-poliza guztietan ezarritako mugen arteko aldeaz, nahiz poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuez ere.

Kontratua amaitzeko aurreikusi den datan ez, beranduago amaitzen bada, beharrezko luzapenak kontratatuko dira eta adjudikaziodunak gainsari egokia ordaindu beharko du.

29. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hemen kontratua egikaritzeko baldintza bereziak:

Mota berezia	Langabeziari aurre egitea
Azalpena	Langabezian dauden langileak kontratatzea sustatuko da. Obra egitean parte hartzen duten azpikontratista guztiei aplikatuko zaie.

30. KONTRATISTARI EGINDAKO ORDAINKETAK

Hilero, ordaintzeko, hurrengo hileko lehenengo hamar egunen buruan, zuzendaritza fakultatiboak ziurtagiria egingo du, eta denboraldi horretan proiektuarekin bat gauzatutako obra azalduko da. Kontura egindako ordainketak izango dira, baina azken neurketan izandako zuzenketen edo aldaketen mende geldituko dira. Ziurtagiri horrekin ez dira inola ere obra horiek onetsi eta hartutzat joko.

Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Araudia onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan ezarritako datu eta betekizunez gain, beste hainbat ere jasoko dira fakturan, hau da, SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoan eta fakturazio elektronikoari buruzko araudian aurreikusitako alderdiak.

Kontratistak, obraren hileko ziurtagiria eman ondoren, administrazio-erregistro batean aurkeztu beharko du faktura. Faktura formatu elektronikoan aurkeztu beharko da, Sektore Publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontularitzako erregistroa sortzen duen abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritako kasuetan. Kasu horietan, faktura sarbide-puntu orokorrean aurkeztea administrazio-erregistro batean aurkeztea bezalakoxea da.

SPKLren 198. artikuluan ezarritakoarekin bat, Administrazioak prezioa ordaindu beharko du obra-egiaztapenak onartzen direnetik hogeita hamar eguneko epearen barruan —210. artikuluko 4. atalean ezarritakoari kalterik egin gabe—, eta berandutzen bada, hogeita hamar eguneko epe hori igarotzen denetik aurrera, berandutza-korrituak eta kobrantzako kostuen ziozko kalte-galerak ordaindu beharko dizkio kontratistari, Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarritakoari jarraiki.

31. SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO PLANA

Eraikuntza-obretan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoa betez, kontratistak Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du. Planak errege-dekretu horretan adierazitako edukia izan beharko du, eta oinarrituta egon beharko segurtasunari edo osasunari buruzko azterlanean edo proiektuari erantsitako segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlanean.

Plana obra hasi baino lehenago onartu beharko da.

32. LAN, GIZARTE ETA GARDENTASUN-BETEBEHARRAK

Kontratistak nahitaez bete beharko du lan-arloan indarrean dagoen araudia eta Gizarte Segurantzarena. Era berean, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen gizonen berdintasun eragingarrirakoak; azaroaren 8ko 31/1995 Legeak, Laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartu zuen Prebentzio Zerbitzuen Araudiak; eta kontratua gauzatzen den bitartean ematen diren gainerako manuek xedatutakoa bete behar du kontratistak.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak nahitaez bete beharko ditu langileen soldata-baldintzak, betiere aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera (SPKL, 122.2 artikulua).

Kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikulua betez, lizitatzaileak nahitaez adierazi behar du zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei.

Era berean, Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuaren esleipendunak Administrazioari eman beharko dio, aldez aurretik errekerimendua eginda, aipatutako arauan eta udal-esparruan erabakitzen diren arauetan aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

33. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI IZAN DAITEZKEEN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Hauek izango dira kontratua gauzatzeko funtsezko betebeharrak:

a. Esleipendunaren proposamena betetzea, kontraturako ezarritako esleipen-irizpideen arabera baloratu den guztian.

b. Berariazko administrazio-hitzarkinen orri hauetan azpikontratazioari buruz ezarritako betebeharrak.

c. Berariazko administrazio-hitzarkinen orri hauetan kontratua gauzatuko duten giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeari buruz ezarritako betebeharrak.

d. Zorrotz betetzea indarrean dagoen araudian eta segurtasun- eta osasun-planean aurreikusitako segurtasun- eta osasun-neurriak.

e. Langileei soldatak ordaintzea eta PFEZ atxikitzea, bai eta Gizarte Segurantzari dagozkion kuotak garaiz ordaintzea ere.

Funtsezko kontratu-betebehar horiek betetzen direla kontrolatzeko, esleipendunak hiru hilean behin honako informazio hau aurkeztu behar dio udalari:

- Soldata-ordainketen eta Gizarte Segurantzari egindako ordainketen frogagiriak, bai eta azpikontratistei egindakoenak ere.
- Laneko segurtasun eta osasunaren arloan dituen beharkizunak betetzeko egiten dituen jardunei buruzko txosten espezifikoa, bertan adierazita hiruhileko bakoitzean horren inguruan izan diren gorabeherak.

Kontratuaren udal-arduradunak justifikazio hori betetzeari buruzko txostena egingo du. Txosten horretan, halaber, berariaz aipatuko da ea betetzen diren klausula honetan kontratua kudeatzen duten langileei buruz adierazitako beharkizunak.

Aldeko txosten hori izan ezean, ez da dagokion faktura ordainduko, eta berehala hasiko da kontratua zigortzeko edo suntsiarazteko espedientea, dagokionaren arabera.

34. LAN-PROGRAMA

Kontratistak lan-programa bat aurkeztu beharko du gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, kontratua formalizatzen denetik zenbatuta. Kontratazio-organoak lan-programari buruzko ebazpena emango du aurkezten denetik hamabost eguneko epean, eta aldaketak sartzea edo agindu jakin batzuk betetzea ezarri ahal izango du.

Kontratistak aurkeztu beharreko lan-programan, urriaren 12ko 1098/2001 Araudian 144.3 artikuluan jasotako datuek agertu beharko dute.

Obra-zuzendaritzak obra-egiaztapenei bide ez ematea erabaki dezake, harik eta kontratistak lan-programa behar bezala aurkeztu arte, eta, horrela bada, ez du eskubiderik izango egiaztapen horien ordainketan izandako atzerapenagatiko berandutze-interesak kobratzeko.

35. OBRA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obra amaitutakoan, kontratistak obra-gunearen garbiketa osoa egingo du, garbiketa osagarririk egin gabe okupatu eta funtzionatzen hasteko.

Kontratistak, berrogeita bost egun baliodun lehenago, idatziz jakinaraziko dio obraren zuzendaritzari kontratua amaitzeko edo gauzatzeko aurreikusitako data, obrak jaso ahal izan ditzan.

Komunikazio horrekin ados egonez gero, obra-zuzendaritzak txostena bidaliko dio kontratazio-organoari, amaitzeko aurreikusitako data baino hilabete lehenago, gutxienez.

Obrak amaitu ondoren hartzeko, bertara hurbilduko dira Udalak izendatutako teknikaria, obra-zuzendaritzako teknikari arduraduna, Udalaren kontu-hartze organoa eta kontratista —hala nahi badu, teknikari baten laguntzaz etorri ahal izango du—. Obrak hartzeko ekitaldiaren emaitzaren akta egingo da, eta bertaratutako guztiek sinatuko dute.

Obrak jaso ondoren, neurketa orokorrak egingo dira, kontratista bertan dela, eta obraren zuzendariak, obrak jaso eta hilabeteko epean, proiektuaren arabera benetan egindakoak neurtuko ditu. Neurketa orokorraren emaitza oinarritzat hartuta, obraren zuzendariak balioetsitako zerrenda idatziko du.

Obra hartzen denetik hiru hileko epearen barruan, kontratazio-organoak gauzatu diren obren amaierako egiaztapena onetsi beharko du, eta kontratistari kontratuaren likidazioaren kontura ordainduko zaio.

Obrak egoera onean eta aurrez ikusitako aginduen arabera eginda badaude, administrazio kontratatzaileak ordezkari gisa izendatutako funtzionario teknikoak hartutzat emango ditu, eta dagokion akta idatziko da; orduantxe hasiko da berme-epea zenbatzen. Epe hori urtebetekoa

(1) izango da, salbu-eta kontratistak luzatzea proposatu badu.

Berme-epearen barruan, egindako lanetan hutsik edo akatsik badagoela egiaztatzen bada, kontratazio-organoak horiek konpontzeko eskatu ahalko dio kontratistari.

Berme-epea bete baino hamabost egun lehenago, obraren zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Aldekoa bada, kontratista erantzukizun orotik salbuetsita gelditukо da —SPKLren 244. Artikuluan ezkutuko bizioei buruz xedatutakoa—, eta bermea itzuli edo kitatuko da, kontratua likidatuko da eta, bidezkoa bada, ordaintzeke dauden betebeharrak ordainduko dira hirurogei eguneko epean. Txostena aldekoa ez bada eta hutsegiteek eraikitakoa erabiltzearen ordez obra egikaritzean izandako urritasunei erantzuten badizkiete, berme-epean zuzendari fakultatiboak kontratistari argibide egokiak emango dizkio eraikitakoa behar bezala konpontzeko. Horretarako, epe bat zehaztuko du, eta horren barruan oraindik bere ardurapean egongo da obrak kontserbatzea, berme-aldia zabaltzeagatik zenbatekoa jasotzeko eskubiderik izan gabe.

36. KONTRATISTARI ESKA DAKIZKIOKEEN GASTUAK

Kontratistaren kontura izango dira lizitazioaren eta, hala badagokio, esleipenaren iragarkien gastuak, bai eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren gainerako gastuak ere, xedapen horiek adierazten duten moduan eta zenbatekoan.

37. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK KUDEATZEARI BURUZKO BETEBEHARRAK

Kontratistak nahitaez kudeatu beharko ditu hornidura hasteko, gauzatzeko eta entregatzeko beharrezkoak diren udal-ordenantzetan eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen arauetan ezarritako baimenak eta lizentziak, salbu-eta kontratazio-organoak bere kabuz kudeatzea erabakitzen badu eta berariaz hala jakinarazten badio. Horretarako beharrezkoak diren dokumentuak eskatu beharko dizkio Administrazioari.

Kontratistak, bere kontura, obrarako sarbidea adierazteko behar diren seinaleak jarri beharko ditu, bai eta lanek hartzen duten eremuko zirkulazio-seinaleak eta obrak gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen arrisku-puntuenak ere. Era berean, lan-eremua garbi eduki behar du beti.

38. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren xede diren prestazio osagarriak zati batean azpikontratatzea baimenduta dago, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 215. artikuluan aurrez ikusitako eskakizun eta baldintzekin.

Azpikontratazioa ondorengo oinarrizko baldintza hauek beteta egingo da:

a. Egin nahi den azpikontratu bakoitza dela-eta, esleipendunak, aurretik, Udalari jakinarazi beharko dizkio, idatziz, honako datu hauek:

-Azpikontratista identifikatzea, horren barruan direla pertsonalitate, gaitasun eta kaudimen-datuak.

-Azpikontratistak zein kontratu-zati egin dituen identifikatzea.

-Azpikontratatzeko prestazioen zenbatekoa.

b. Ezingo dira azpikontratatu administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna kendu zaien pertsona edo enpresak, ezta azpikontratatzen diren prestazio zehatzak gauzatzeko gaitasun, kaudimen eta ahalmen profesionalik ez dutenak ere.

c. Azpikontratatzen duen kontratistak lan horiek hasi baino lehen egiaztatu beharko du lanak egingo dituzten langileen alta eta afiliazioa Gizarte Segurantzan, 5/2011 Errege Dekretu Legeak, apirilaren 29koak, ezkutuko enplegua arautu eta kontrolatzeko, baita etxebizitzak birgaitzen direla sustatzeko ere neurriei buruzkoak, xedatutakoa betetze aldera.

d. Kontratistak langileen ordezkariei azpikontratazioaren berri emango die, lan-legediarekin bat.

e. Azpikontratistak bakarrik pertsona kontratista nagusiaren mende egongo dira, eta, beraz, bigarrenak kontratua egikaritzean Udalaren aurrean erantzukizun osoa izango du eta zorrozki erreparatuko die berariazko administrazio-hitzarkinen orriei eta kontratuaren baldintzei. Aurrekoaren harira, nahiz eta Udalak azpikontratatu duela jakin, ez da aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

f. Kontratistak azpikontratatutakoei egindako prestazioen truke hitzartutako prezioa ordainduko die gutxienez 3/2004 Legeak, abenduaren 29koak, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituenak, aurrez ikusitako epeetan. Betetzen dela bermatzeko, Udalari egindako faktura bakoitzean kontratistak kontratuaren esparruan enpresa edo autonomo azpikontratatuak aurreko hilabetean egindako lanen inguruan ordainagiriak aurkeztuko ditu.

39. KONTRATISTAREN ONDORENGOTZA

Enpresak edo horien jarduera-adarrak batu, zatitu, ekarri edo eskualdatzen direnean, indarrean dagoen kontratuak aurrera jarraituko du ondoriozko entitatearekin, eta horren ondoriozko eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, baldin eta SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak gertatzen badira.

Kontratistaren betebeharra da administrazioari modu frogagarrian jakinaraztea bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa, eta, harik eta subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte, eten egingo da fakturak ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa.

Kontratua esleitzen zaion entitateak kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako subrogazioa ezinezkoa denean, kontratua suntsiaraziko da, eta, ondorio guztietarako, kontratistaren erruarengatik suntsiarazi dela iritziko zaio.

40. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratua beste bati laga ahal izango zaio, betiere SPKLren 214 artikuluan jasotako muga eta baldintzekin:

a. Kontratazio-organoak aldez aurretik eta berariaz baimentzea lagapena.

b. Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gauzatuta edukitzea.

c. Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna eta kontratuaren egikaritze-fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea; gainera, behar bezala sailkatua egongo da, baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio. Azkenik, ez da kontratatzeko debeku-arrazoiren batean murgilduta egongo.

d. Lagapena esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean eskritura publikoaren bitartez formalizatzea.

41. BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

41.1 Berandutzeagatiko zehapenak

Esleipendunak nahitaez bete beharko ditu kontratuaren egikaritze-epea eta epe partzialak, kontratazio-organoak finkatu ostean.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, guztizko epea betetzean berandutuko balitz, Udalak kontratua suntsiarazi ahal izango luke edo, bestela, eguneko honako zigorra jar dezake, SPKLren 193.3 artikuluan aurreikusitako eran: 0,60 euro kontratu-prezioaren 1.000 euroko, BEZa kanpoan dela.

Berandutzari dagozkion zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en anizkoitz batera heltzen diren bakoitzean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua burutzen jarraitzea erabakitzeko, baina zigor gehiago ezarriz.

Kontratistak kontratuan zehaztutako zerbitzuen burutzapen partziala beteko ez balu eta horren errua berari egotzi ahal balitzaio, administrazioak kontratua suntsiarazi ahal izango luke edo, bestela, arestian ezarritako zigorrak ezarri.

41.2. Prestazioa ez betetzeagatik edo txarto betetzeagatik ezarritako zigorrak

Oso larritzat jotzen da esleipendunak ez betetzea berariazko administrazio-hitzarkinen orri hauetako 29. hitzarkinean ezarritako egikaritze-baldintza berezietako edozein.

Ez-betetze horiek kontratua suntsiarazteko kausa izango dira, salbu-eta jardun isolatua dela eta berbideratu daitekeela irizten denean, eta kontratua suntsiaraztea ez dela komenigarria kasuan kasuko zerbitzuaren intereserako; kasu horretan, haren ordez, dagokion zigorra ezarriko da.

Kontratuaren ez betetze oso larriek berekin dakarte esleipen-prezioaren % 5eko hertsapen-zigorrak ezartzea, BEZ kanpo, arau-hauste bakoitzeko eta/edo epeak bete ez diren egun bakoitzeko, betiere arau-haustearen larritasunaren, berrerortzearen eta fede txarraren arabera.

Kontratistak azpikontratazioaren arloan 38. hitzarkinean ezarritako beharkizunak betetzen ez baditu, azpikontratatutakoaren zenbatekoaren %5eko zigorra ezarriko da, eta hori errepikatzeak kontratua suntsiaraztea ekarriko du.

Esleipendunak beste edozein kontratu-beharkizun ez betetzeak edo beharkizun horiek txarto betetzeak, halaber, kontratuaren prezioaren %5eko hertsapen-isuna ekarriko du, haren larritasunaren eta berrerortzearen arabera.

Esleipendunari ezartzen zaizkion zigorrek ez dute zerikusirik kontratistak udalari edo Udalaren aurka errepikatzeko eskubidea duten hirugarrenei kalteak eta galerak ordaintzeko duen betebeharrarekin.

Esleipendunak eskaintzaren alderdiak betetzen ez baditu, kontratistari eskatuko zaion kalteordainak bere eskaintzaren eta kontratua esleitu zaion hurrengo kontratistaren eskaintzaren artean egon den aldea jasoko du, esleipendunak bete ez duen irizpidea kontuan hartu gabe.

41.3. Zigorrak ezartzea

Kontratuaren gaineko arau-hauste horien ziozko zigorrok eta kalte-ordainok ezartzeko, kontraesan-espediente sumarioa jarraitu beharko da, non 5 egun naturaleko epea emango zaion alegazioak egiteko, salaketa jarri ondoren. Alegazio horiek eta zigor-espedientea alkateak edo berak eskuordetzen duen zinegotziak ebatziko ditu, betiere zerbitzuaren udal-arduradunaren txostena eta txosten juridikoa ikusita. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari.

Udalak aipaturiko zehapen horiek ezartzeko espedientea hasiko da gertaeren berri idatziz jasotzen denean. Alabaina, baldin eta araua ez betetzeak egin beharreko lanen burutzapen materialean eragin larririk ekarriko ez duela uste bada edo zigor-espedientearen hasiera

mesederako barik kontraturako kaltegarriagoa izango dela irizten bazaio, kontratua bermatzeko epea bukatu baino lehen hasi ahal izango da zigor-espedientea edozein unetan.

Berehala betearaztekoak izango dira ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak, eta Udalak kontratistari egin beharreko ordainketetatik deskontatuko dira. Ordaintzeko kopururik ez badago jada, behin betiko bermetik deskontatu ahal izango dira, eta berme hori ez bada nahikoa zehapenaren zenbatekoa ordaintzeko, premiamenduko administrazio-bidez erreklamatu ahal izango da, zuzenbide publikoko sarreratzat hartzen delako.

42. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua formalizatu ondoren, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak eta mugak gertatzen direnean.

Aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, aldez aurretik entzunaldia emanda erabakiko dira, eta administrazio-agirian formalizatu beharko dira, behin betiko bermea doitu ondoren.

43. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratuaren suntsiarazpena baldintza-orri hauetan eta SPKLren 211. eta 245. artikuluetan adierazitako kasuetan gertatuko da, eta kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta.

Horrez gain, kontratazio organoak kontratua suntsiaraz dezake hori betetzeko epe osoa edo epe partzialak betetzen ez direnean, baldin eta horrek, ustez, ezinezko egiten badu epe osoa betetzea. Nolanahi ere, horretarako baldintza da kontratazio organoak zigorrak ez ezartzea erabakitzea, 41. hitzarkinaren arabera.

Era berean, SPKLren 211.f) artikuluaren babesean, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira kontratazio-organoak funtsezko betebehar gisa ezarritakoak.

Kontratua suntsiarazteak proiektuaren arabera egindako obrak egiaztatu, neurtu eta likidatzea ekarriko du, eta kontratistaren aldeko edo kontrako saldo egokiak finkatuko dira. Kontratistari zitazioa egin beharko zaio egiaztapen- eta neurketa-egintzara joateko.

Kontratua kontratistaren erruz suntsiarazten denean, behin betiko bermea konfiskatuko zaio, Udalari sortutako kalte-galerengatik konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen horretan kalte-ordaina gorabehera.

44. OBRAREN ZUZENDARI FAKULTATIBOA

Administrazioak izendatzen du obraren zuzendari fakultatiboa. Titulazio egokia eta nahikoa eduki beharko du obra zuzentzeko eta kontrolatzeko, eta bere gain hartzen du Administrazioaren ordezkaritza kontratistaren aurrean.

Eraikuntza-obretan segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretutik eta gai horri buruzko gainerako arauetatik eratorritako eginkizunez gain, zuzendari fakultatiboak bere gain hartuko ditu SPKLren 62. artikuluan aurreikusitako kontratu-arduradunaren eginkizunak, zehazki honako hauek:

- Kontratua gauzatzearen jarraipen materiala egitea, horrela egiaztatu ahal izango baita kontratistak kontratuan adostutako moduan betetzen dituela betearazte-beharkizunak.

- Egiaztatzea esleipendunak gizarte-, zerga- eta ingurumen-arloan eta azpikontratisten gaian dituen beharkizunak benetan betetzen direla, bai eta kontratuan ezarritako beharkizunak ere betetzen direla, baldin eta beharkizunok dokumentazioa aurkeztea edo administrazio-izapideak egitea badakarte.

- Kontratuaren xedea betetzean sor daitekeen edozein gorabehera konpontzeko beharrezkoak diren bilerak sustatzea, hargatik eragotzi gabe kontratazio-organoak Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 97. artikuluan ezarritako kontraesan-prozeduraren bidez suntsiaraztea.

- Kontratistari jarraibide egokiak ematea, hitzartutako baldintzetan kontratua benetan betetzen dela ziurtatzeko. Jarraibide horiek berehala betearaziko dira, pertsonen segurtasunari eragin diezaioketen neurrian, edo atzerapenak gerora alferrikakoak izatea ekar dezakeenean, kontratuaren gauzatzearen garapenaren arabera. Gainerako kasuetan, eta ados ez dagoela adieraziz gero, esleipendunak kontratazio-organoak hartu beharreko neurriari buruzko ebazpena emango du, egon daitezkeen kalte-ordainei kalterik egin gabe.

- Kontratua ez betetzeagatik zigorrak ezartzea proposatzea.

- Kontratua gauzatzeak eragin dituen kalte-galeren erreklamazio-espedienteetan txostenak ematea.

45. KONTRATUA JARRAITU ETA GAUZATZEKO MODUAZ ARDURATZEN DEN UNITATEA

SPKLren 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetza arduratuko da kontratuaren jarraipenaz eta gauzatze arruntaz.

46. EZKUTUKO AKATSENGATIKO ERANTZUKIZUNA

Berme-epea amaitu eta gero, baldin eta, eraikinaren ezkutuko akatsak direla-eta, obra hondatu egiten bada kontratistak kontratua bete ez duelako, kontratistak hamabost urtez

erantzun beharko die, obra hartzen denetik kontatzen hasita, sortzen edo agertzen diren kalte-galerei. Erantzukizun hori SPKLren 244. artikuluan xedatutakoaren arabera egokituko da.

47. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN TRATAMENDUA

47.1 Konfidentzialtasuna

Enpresa esleipendunak (datuen tratamenduaz arduratzen den aldetik) eta bere langileek, integritate- eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, eskuragarri dituzten datu pertsonalak segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte, horrela barruan dela baimenik gabeko tratamenduaren edo legez kontrako tratamenduaren aurkako babesa, baita haien ustekabeko galeraren, suntsiketaren edo kaltearen aurkako babesa ere. Tratamendu hori egiteko, hainbat neurri tekniko edo antolamendu-neurri egoki aplikatu beharko ditu, hala ezartzen baita Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduan (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).

Bekarkizun hori sekretu profesionalaren betebeharren osagarria da, eta bere horretan jarraituko du datuen tratamenduaren arduradunarekin (Udalarekin) kontratua amaitu arren ere.

47.2. Datuen tratamendua

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie beren eskaintza eta kontratazioa egiteko behar diren gainerako agiriak aurkeztuz biltzen diren izaera pertsonaleko datuak Udal honek tratatuko dituela, horren helburua izanik kontratua behar bezala mantentzen, betetzen eta haren garapena kontrolatzen dela bermatzea.

Lemoizen, 2023ko _____aren ___(e)an.